

## **Funtsezko baliabideak**

Badaude hainbat baliabidea funtsezkoak direnak edoizein enpresa aurrera ateratzeko, hauek baliabide fisikoak, baliabide intelektuala eta giza baliabideak dira. Gure helburura iristeko bidearekin jarraituz baliabide hauek aztertu ditugu.

Gure enpresak aurrera egin ahal izateko hainbat baliabide fisiko behar ditugu. Esate baterako, denda fisikoa, telefonoa, instalaziorako materiala eta ordenagailua, horiek baliabide fisiko nagusiak izango lirateke. Horiez gain beste batzuk ere beharko baititugu, ala nola, publizitaterako beharrezko materiala, herramientak...

Baliabide fisikoez gain, baliabide intelektual eta giza baliabideei ere beharko ditugu. Horretarako enpresako langile bakoitzak hoberen ematen zaiguna egingo dugu. Lan erraza izan da bakoitzari ardura bat esleitzea bakoitzak gustu eta esperientzia desberdinak ditugulako. Unai denda fisikoaz arduratuko da; izan ere, berak salmentarako eta antolaketarako abileziak ditu. Gainera aurretik badu esperientzia bezeroekin harremanak izaten lan horretan arituko da. Horrez gain, Nahia telefonoa eta webgunea aurrera eramateaz arduratuko da, berak informatikarako abilezia handiak dituelako. Postu honetarako oso egokia da webgune egoki bat nola sortu eta aurrera aterako kurtso batean izan zelako duela pare bat hilabete. Oier eta Ilane gure produktuaren instalazioan arduratuko dira, biek muntai munduan esperientzia handia dutelako. Beraiek arduratuko dira gure bezeroen etxeetara joatez, dutxarako teknologia berria ezartzeko. Azkenik, Urki enpresaren diru kontuetan arituko da, hau da, hornitzaileei ordaintzeaz, beste gastuak kudeatzeaz eta soldatak antolatzeaz arduratuko da. Uste dugu bera dela egokiena atal honetan arduratzeko ekonomia mundua aditua delako eta asko gustatzen zaiolako horrelako gauzetan aritzea.

Azkenik, finantza baliabideei dagokionez, gure aurrezkiak izango dira.